

**ANGLIZISMOEN ERABILTZAROA
(HEDABIDEAK GILTZARRI)**

Ingelesaren nagusigoa bistan

Ingelesa hatz handia ari da uzten munduko gainerako hizkuntzetan. Bizitzaren esparru guztietan nabari da ingelesaren eragina. Lexikogintzatik abiatutik, ekonomian zein politikan, armagintzan zein informatikan, ingeles guztiahaldunari men egin beharrean gara maiz beste hitzik ezean.

Hedabideek egunero eta orduero hedatzen eta islatzen dute hizkuntza anglosaxoiaren nagusigoa. "Informazioaren Gizartean" bizi izanki, gero eta nabariago gertatzen da hizkuntza gutxi-mintzatu eta diglosikoen biziraupenerako bidean lehiakide berri bat aintzat hartzea: ingelesa. Telekomunikazio, informazio eta *bipermedi*en gizartean euskara haboroz haboro erkatu beharko dugu ingelesarekin inguruko erdarekin baino –gaztelania eta frantsesarekin alegia–. Aro honen "hasiera" nabarian gaudelarik, on dateke ingelesaren bitartez azken bolada honetan heldu zaizkigun hitz eta esapideez, gaingiroki bada ere, gogoeta egitea.

Anglizismoak, bistakoa denez, ingelesetik edo ingelesaren bitartez gure hizkuntzan edo ingelesa ez den batean erabiltzen

ditugun hitz edo esapideak dira. Modan, zinemagintzan, gorpuzgintzan edo kantugintzan gertatu den bezala, hizkuntzak ere jaso ditu lexiko ingelesaren eraginak. Bi dimentsiotan antzeman daiteke eragin hori. Alor diatopikoan alde batetik, diastratikoan bestetik; hots, hedapen geografioari gagozkiola, Iparraldeko zein Hegoaldeko euskarari alde batetik eta euskal gizarteko "gizatalde" desberdinetan bestetik. Herri ingelesdu-nak gure baitatik horren urrun daudenez gero eta irakaskun-tzari esker gero eta ingeles gehiago dakiten belaunaldi berriak gutxietsi gabe, pentsa dezakegu erratzeko hedabide edo kaze-tarien bitartez nolabait gureganatzen ditugula ingelesetiko ber-bak, egiturak eta esamoldeak. Horixe da; hedabideak eragile zuzenak ditugu anglizismoen fenomenoaren bilakaeran eta, subjektu partehartzaileak diren aldetik, kazetariei beraiei dago-kie (suertatu zaie hobe) argiro finkatzea jokaera, ezezagunak diren kontzeptuak topatzean nola idatz eta nola ahoska, zeren anglizismoak hala aintzat hartu behar baitira ortografiaren es-parruan nola ortologiarenean. Eta hitz arrotzen finkatze proze-suan garrantzi handia ematen zaio kazetariaren langintzari, ze-ren gehienetan hizkuntz akademiaren aurretik baitoa hitzok hi-ritarrei agertarazteko orduan.

Gizarteko esparru guztietan sartzen ari dira anglizismoak eta Niko Etxart kantari zuberotarrak *tumatxa* (*too much*, gehiegi) Hegoaldean zein Iparraldean modan jarri zuenetik urte andana iragan arren, oraindik ere halabeharrez zein beharrik gabe da-rabiltzagu horrelako hitz arrotzak. Egungo gizartean eta gero-koan areagotu egingo omen da fenomeno hori, zeren ingele-saren eragin ekonomiko, politiko eta soziala gero eta handia-goia baita. Gainera telekomunikazioen esparrua eta informazioaren autobideak asfaltatzeko galipot ingelesa ari di-ra ipintzen, mundu mailan elkarri ulertzeko bigarren hizkun-tzatzat jo dezakegun ingelesaren nagusigoia bermatuko duena.

Azaroaren 27ko goiza da. Euskadi Irratia piztu eta kirol ema-naldia entzuten hasi naiz. Bat-batean anglizismoak samaldaka igorri dizkit kirol-berriemaileak, bata bestearen ondotik minutu

batez: Bilboko Motor *Showaren* II. lehiaketa...; *bogia* erabiliko du...; *kartak* ere izango dira *challengean*...; lehiaketa hau *indorra* izango da... Kirolaren alorra oso emankorra da gure mintzairan anglizismoak sartzeko. Herri anglosaxoiengandik datozkigun hitzak ohiko bihurtzen zaizkigu, kirolak ere gero eta ezagunagoak bilakatu arau. Egun *dribblinga*, *kornerra*, *penaltya*, *krosa*, *beisbola*, *crawla igelaria*, *ringa* eta horrelako beste anglizismo asko bitartekari ezagun batzuen bidez iritsi ohi zaizkigu: kazetaria izaten da bitarteko nagusia ez bairik gabe. Euskarak baditu beste anglizismo batzuk, lexikoan erroak bota dituztenak eta askotan itsasgizon euskaldunek herri ingelesdunetarik ekarriak izan direnak: **leber** (Bizkaiko berba *azkarra* edo *trebea* aditzen emateko, *clever* hitz ingelesak esan nahi duena hain zuzen ere) **beita** (1627an jada agertua; *bait* era ingelesetik; gaztelaniaz: *cebo*), **ginbelet** (1653an jada jaso; *gimlet* eratik hartua; gaztelaniaz: *barrena*)...; beste batzuetan ez dago argi mailegua ingelesetik artez hartzen den ala hizkuntza bitartekariak (gaztelera edo frantsesaren bidez) egiten den: **halibut** (arrain mota), **bibote** (gaztelaniazko *bigote* hitzaren kidea eta jatorriz by God - *Jainkoagatiko zina* esan nahi zuena) eta abar. Dena den, marinelen salbuespenaz argi dago euskara ez dela egon harreman zuzenetan ingelesarekin harik eta Informazioaren Gizarteak hizkuntz germaniko honen erabilgarritasuna aldarrikatu eta bultzatu duen arte. Horren kariaz eta nahiz eta ingelesetiko hainbat hitz inguruko erdaren bitartez jaso ditugu euskaldunok, garaia heldu da euskarak maizago tinko begira diezaion ingelesari, mugakide ditugun erdarek baino.

“Kazetariak heda, hiritarrek xeda”

Hain garrantzizkoa da kazetarien hizkuntz soslaia, ezen hiritarren errazki somatzen baita haien ekoizkinen isla finkatua hizkuntz ohikerietan. Kazetariak ahalmena du anglizismoak era batez edo bestez finkatzeko, jatorrizko moldeei men egin ez eta alor fonikoan zein idatzizkoan errespetuz jokatu, edo

jatorrizko moldeetarik bereiztu, era arrotzak hizkuntza propioari egokituz. Bi joera hauek beti izan dira eta dira oraindik anglizismoei buruz ari garenean. Euskaldunon Egunkariari behako bat ematea baino ez da konturatzeko euskaldunok oraindik ez dugula argi zeren alde egin anglizismoak topatzen ditugunean. Dena den, inguruko hizkuntzetan ere gauza bera gertatzen da.

Batzuek azal dezakete kazetariak ingelese beren egiten duten heinean, jatorrizko moldeenganako atxikimendua haboro nabaria izanen dela; eta ez zaie arrazoia falta. Nik ondo deritzot horri, azken buruan, informazio gizarte eleanitz honetan hizkuntzaren esparruan ere multikulturalismoa nagusitu behar baitzaio etnozentrismoari. Neologian multikulturalismoa mailegutxari loturik joan ohi da; etnozentrismoak, oster, hizkuntza jasotzaileak hitzak asmatzeko dituen prozeduren erabilera bortxatua eduki ohi du ezaugarri.

Berrikitan Donostian burutu den terminologiazko nazioarteko biltzarrean¹ nahastu egin dira *neologismo* eta *mailegutza* berbak, ahantzi egin baita maileguak ere neologian sartzen direla. Hitz berriak sortzeko prozeduretariko bat da mailegutza, beste era batzuekin batera (elkarketa, eratorpenak eta parasintesia ibiliz nagusiki) kontzeptu berriak azaltzearen alorra osatzen duena.

Hitz mailegatuak gure lexikora ekartzeak aberastu egiten gaitu eta nolabait hedatu egiten ditu hizkuntzaren mugak modernotasunaz jabetuz eta terminologia desberdinetan barrena sakonduz. Ingelesak ere bereganatu ditu beste hizkuntzetariko hitz eta esapideak, desberdintasuna bilatu beharrean, "adierazkortasunik handiena lortzeko xedez"². Telekomunikazioa eta informaziobideak horrenbeste garatu eta hedatu diren aroan hizkuntzen biziraupena eta maileguak hartzeko gaitasuna elka-

¹ Terminologia nazioarteko biltzarra. Antolatzaileak: HAFE eta UZEL. 1997ko azaroaren 12, 13 eta 14an.

² Emilio Lorenzo: "No todo es inglés (I)" in ABC, 1997ko abuztuaren 25ean, 3. or.

rekiko harremanetan doaz, zeren neologiaz arduratzen ez diren hizkuntzak beren buruaz beste egiteko zorian baitaude.

Gaztelaniak eragin eskerga jaso zuen euskararengandik, sorlekua aintzinako Euskal Herriaren hizkuntz muga eduki baitzuen Lope Gartzia Salazarkoaren hizkuntzak. Eta gure hizkuntza eta ingurukoak hizkuntz harreman estuetan egon diren bezalaxe, informazioaren gizarteak eta hedabideek muga geografikoak ezabatu eta hizkuntza britainiarra gizarteko zenbait esparru eraginkorretan sartu dute; hala nola, kantugintzan, zinemagintzan, zientzian eta ekonomian. Hala jalgi ditu mundura ingelesaren bidez espainierak *guerrilla*, *vainilla* eta *embargo* bezalako hitz eta kontzeptu baliosak, nola ingelesak *software*, *fútbol* eta *broker* berba ohikoak; batak eta besteak beharrezkoak, era batez edo bestez idatzita eta ahoskatuta, gizateriaren lexikoen ondareari on egin diotenak. Oxford ingeles hiztegiaren bigarren edizioak jasotzen dituen ia 100.000 berbetarik 1.350 gaztelaniatik harturikoak dira³ eta ingelesaren substratuetara jotzen badugu kopuruaz harrituko ginateke autore batzuek aipatu bezala⁴. Datu hauek argiro erakusten digute nola munduko hizkuntza handiek beren handitasunean kontzeptu arrotzak adierazteko hitz mailegatuak erabiltzen dituzten, zeren zenbat eta hitz gehiago eduki hizkuntza baten lexikoak, zenbat eta landuagoa egon neologismoen alorra, orduan eta handiagoa baita hizkuntza⁵.

³ Emilio Lorentzok aipatua "La deuda hispánica del inglés" izeneko artikuluan (*Saber leer* aldizkaria), 1997, abuztua-iraila, 107. zb., 6. or. Frantsesetikoak ere oso ugari dira, Normandiarren hegemonia garaian sartuak, maiz bikoteak sortuz: ox/beef, lamb/mutton, Ms/Madam; euskaratik ere bada baten bat: bilbo (ezpata), adibidez, Shakespearek erabilia.

⁴ Luis María Muxikak jotzen du substratu galo-latinoa ingelesaren lexikoaren %75era iristen dela. Datua "Diccionario general y técnico Castellano-Euskara", lehen liburukia, Donostia: Ediciones Vascas, 1979, 21 or.

⁵ Lexikoaren zabaltasunari esker dagokio greko klasikoari ere handitasuna. Greziaren lexikoaren %50 besterik ez omen da indoeuropar jatorrikoa, gainerakoa semiera, egiptoera eta pelasgoera dateke -eta.

Baina euskararen esparruan nola hartu dira anglizismoak? Horri erantzuteko, ezbairik gabe, hiru eremu hartu behar ditugu aintzakotzat, euskararen esparrua ere hiru muga horien barnean mugitzen baita: atzerriko euskara, Iparraldekoa eta Hegoaldekoa. Estatu Batuetara joandakoek, esaterako, gertuagotik ikusi dute anglizismoen problematika. Egoera diglosikoan euskaraz mintzatzen segitu duten euskaldunek inolako problemarik gabe beren egin dituzte *piknika*, *troka* (*truck* edo kamioia) eta horrelako anglizismoak, askotan konturatzeke beren hizkuntz ondarearen bideak nora daramatzen. Euskal Herrian bertan eta hiritarrak informazioaren autobidean sartu arau, anglizismoen problematikak EEBBetan bizi diren euskaldun diglosikoen mailegutza ereduarekiko antz handiagoa hartuko du baldin eta Euskaltzaindiak eta kazetalaritzak zuhur eta jakituriaz jokatzan ez badute. Ibon Sarasolak salatu bezala, euskarak ahalegin berezia egin behar du euskaldun guztiok maileguen esparruan ere elkarrengandik hurbilago egon gaitezen, aldentzeko balio izan beharrean. Beraz, mugak gora-behera, euskara euskaldun guztion hizkuntza denez gero, on dateke hizkuntz akademiak atzerrian bizi diren komunitateetan erabiltzen diren terminoak aztertzea eta anglizismoen ortografia eta ortoepia finkatzeko orduan beren herriitik urrun bizi direnen erabilerak eta hizkuntz ohiturak aztertzea.

Liburu zientifiko-teknikoak, Internet eta mezu bideak anglizismoz josita datozkigu egun eta horrek piztu egin behar du gure baitan maileguengan jarri beharreko arreta. Horrez gain, terminologoen lana ere baloratu beharra dago, apika, kazetaria izanki sarritan kazetaritzan terminologoen halaber beharrean.

Barbarismoak edo erdarakadak non-nahi ikusi nahi dituztenei, hitz arrotz guztiei muzin egiten dietenei alegia, esan behar zaie askotan alferrik saiatzen direla kontzeptu berriak izendatzeko berbak sortzen, bultzatzen eta asmatzen, zeren hitzek berek izaera grafikoa ere baitaukate. Hizkuntz akademiek batzuetan maileguzko hitzak ez hartzeko senperrenak egin arren, alferreko lana egin dutela jabetu dira anglizismoen alorrean, espainiarrari gertatu zaion bezala.

César Coca-k estilo-liburu eta neologismoen gainean aipatu zuen neologismorik ohikoena maizenik topatzen duguna dela eta estilo-liburuek gero eta gehiagotan albo batera utzi behar dituztela neologismoak⁶. Iruzkina bi hauek zer pentsa ematen digute, neologismo mota guztiek funtzio baitezpadakoa baitute: kontzeptuen *argitasuna* eta, horren ondorioz, *erabilgarritasuna*. Funtzio hori edukita eta batez ere lengoaiaren terminologikoan erabiltzen direla aintzat hartuta, ez dirudi horrenbesteko beldur eduki behar diegunik angлизismo eta gainerako neologismoei. Eta hori horrela nahiz eta zalantzarik ez dagoen zama soziolinguistikoaren alorrean gaineragin baten elementu soziokulturalak ere badirela hitz arrotzak.

Kazetariak zenbait baliabide dituzte neologiaren alorrean sartzen direnean: a) etiketa (prensa idatzian oso erabilia) edo kakotxak jarri eta terminoa bere horretan utzi (usuago erabiltzen da egun letra makurra horretarako); b) naturalizazioa edo helburu-hizkuntzak angлизismoa bere egiten duenean (*baseball* berba ingelesa *beisbol* bihurtzen da); c) kalkoa edo subjektu hizkuntzako berbaren transferentzia itzulia (*politikoki* zuzena bihurtzen da *politically correct* esakunea); d) neutralizazioa (ikusientzunezkoetan oso baliagarria izan daitekeena) edo angлизismoen esangurak argiro gera daitezen erabiltzen diren azalpenak (Sadamek *blockouta* agindu zuen, hiriko argiak itzaltzea alegia); e) bikoizketa edo aukerako hitza(k) eranstea esangura argitzeko *asmoz* (*off-the-record* edo mikrofonoa itzalita esan zuen); f) izen generikoen eransketa, hots, angлизismoa zehazteko eranstean den izen mugatzailea (*jeans* prakak zeramatzen hil zutenean). Sei moldeen hauek gain, kazetariak oso arriskutsua izan daitekeen beste bat dauka: hitz berri patrimoniala asmatzea. Azken baliabide hau, berez, kazeta lengoaiak dituen ezau-garrien aurka doa, sarritan hitz berriak ezezagunak baitira irakurle-entzuleentzat. Kazetariak, horrelako berbak erabili aurretik,

⁶ César Coca: "El lenguaje periodístico ante el neologismo" in "El neologismo necesario", Madrid: Fundación Efe, 1992, 93-94 orr.

lengoaia terminologikoetan adituak direnei kotsulta egin behar die, benetan jakiteko hitz berriaren aipatzeak kalte ala on eguin diezaiokeen mezuaren deskodifikazio argiari.

Anglizismoen grafia eta ahoskera

Denbora eta kazetariak parametro onak izaten dira kontrolatzeko anglizismoen finkapena non eta nola egiten den. Hizkuntza etengabe doa aldatuz eta kanpotik bereganatzen dituen hitz eta esapide berriek eragin handia dute aldakuntzaren prozesuan. Maileguak ere, hizkuntzak bezalaxe, grafian eta ahoskeran transforma daitezke, salbu eta hizkuntza guztiek duten oinarritzko lexiko finkakorren partaide bihurtzen ez badira. Beraz, aroek dakartzaten moden aiduru, egun mailegutzan nagusi ditugun anglizismoen grafiaz eta ahoskeraz zerbait gehiago jakitea interesgarria daiteke.

Ene ustez, paseak dira urteak noiz ahoskatu bezala horrelaxe idazten baitzen. Gaztelanian ere konturatu ziren *güisqui*, *joqui*, *jai laif* eta horrelako era maskaratuak lekuz landa zeudela aro modernoan. Hala ere kazetari gaztelauek irentsi egin zituzten horrelakotsuak diren *sängüich*, *cóctel*, *bacón*... Jatorrizko erak zeharo irentsita (fonemak eta grafemak aldatuta), egokitzapenaren aldeko apostua egiten da erabiliaren erabiliaz hiritarrek erraz-erraz berenganatu egingo dituztelakoan. Kazetariak ulergarritasunari men egiteko joera nagusitzen da hedabideetan eta, zapping-aren lehiakortasunak eraginda, "herrikoitasuna" bilatzen da gizarte eleanitz batean bizi diren askoren harridura sortuz.

Ez dirudi oso ulergarria denik *derbi* eta *rugby* anglizismoak onestea (bata *i* grafemaz eta bestea *y-z* idatzita), bata zein bestea kategorizazio berean daudeke-eta. Euskaldunon Egunkari-koek aiantzi xamar izan dute zenbait kasutan hitz grafikoek duten izaera gordetzea hainbat anglizismotan: *pudding*, *record*, *scout*, *slalom*, *snob*... Horiek bazterturik, *budina*, *erreko-rra*, *eskauta* eta *eslaloma* aldaki grafikoak ez dut uste gogoko

dituenik ingelesa hainbeste urtez ikasten ihardun duen euskal gazteriak. Hori horren argiro ez da ikusten hizkuntza jasotzailean hitz-eratorriak, aditzak-eta sortzen direnean; hala nola, *estandarizatu*, *estresatu*, *esnifatu*... Izan ere, anglizismoen idazkera eta ahoskera banan-banan erabaki behar dira neologismoaren ezaugarriak ondo neurtuz. Langintza horretan Euskaldunon Egunkarikoek urrats handia egin dute estilo-liburuaren azken edizioan, idazkuntzak ematen dituen baliabide grafikoak erabilgarritasunaren faboretan jarriz. Kazetarietzat baliagarria da oso anglizismoak letra makurrez zein arruntez idatzi behar diren jakitea. Horrela eginez berehala kontura gaitzke maileguzko hitzek zelako bidea egin duten, hizkuntza jasotzailean bertakotze prozesuan aurrera egin dutenentz,

Europako herri elebidun edo ia-elebidun askotan kazetariak erabaki simple eta ohikotzat dute jatorrizko grafiatik eta ebake-ratik ahalik eta gutien aldentzearena. Eta horren kontra izan dira, esaterako, Espainieraren Errege Akademiak izan diren gehienak oraintsura arte behintzat. Akademia horrek atera duen hiztegiaren edizioetan argiro ikusten da hitzen era grafikoak gazteleratzeko grina eskerga; Leonardo Gómez Torregoren hitzak adibidetzat⁷:

"Espainieraren Errege Akademiak erdarakaden kontu honetan lan gogorra daukala jakitun gaude; batez ere, garai honetan, zeren hitzak ez baitira hizkuntzaren erabiltzaileen baitan entzumenaz soilik sartzen (hori lehengo joera zen, *fútbol*, *mitin* eta horrelako hitzak gazteleratzea permititu ziguna), baizik eta, batez ere, ikusmenaz."

Horrexek azaltzen du hain zuzen ere anglizismoen erabileran hizkuntz akademia espainiarrak 1992ko edizioan ukan zuen aldaketa, 1970 eta 1984ko edizioetako *guisqui* eta antzeko formen ondoan aldaki nagusiak jarriz: *whisky* eta abar. Baina geurea irudi eta ikusentzunezkoen gizartea dela eta horrek jatorriz-

⁷ Leonardo Gómez Torrego: "El léxico en el español actual: uso y norma". Madril: Arco/Libros, 1995, 358-359 orr.

ko grafia ingelesen alde jokatzeari zilegi izan daitekeela ezagutu arren, hainbatek segitzen dute apostu egiten grafia subjektu bizkuntzaren ahoskeraren arabera aldatzearen alde; horren adibide, G-meiz Torregoren aurreko pasartearen segida⁸:

"Hala eta guztiz ere, gu hitzok gaztelartzeko eman beharreko ukituak egitearen aldekoak gara edo beste hitz edo hitz multzo batez itzultzearen aldeko. Uste dugu *boutique* bezalako berbak (*butic* ahoskatuta) edo *sándwich* edo *best-seller* (horrela idatzita) espainieraren hiztegian ez direla egokiak".

Euskal kazetaritzan anglizismoen idazkera zein den ikusteko asmoz eta euskarazko prentsaren estilo-liburuko erak beste eskuliburu batzuetako berberekin erkatzearen, hamabost hitz ekar ditzadan orri hauetara. Horrela diferentziak edo joerak zein diren ikusi ahalko dugu. Erok ausaz hartu ditut eta euskal formak Espainiako prentsan tirada handiko bi kazetaren eskuliburuetakoa moldeekin erka daitezke.

ING.	EGUN. (1995)	EL MUNDO (1996)	EL PAIS (1996)
bazuoka	bazoka	bazuca	bazuca (<i>lanzagranadas</i> hobesten da)
chip	txip	chip (en redonda)	chip (idatz bedi <i>microprocesador</i>)
cocktail	koktel	cóctel	cóctel
derby	derbi	derby	derby
drive	drive	drive	drive
junkie	junkie	yonqui	yonqui
pudding	budín	budín	puclín
radar	radar	radar	radar
record	errekor	récord	récord
rugby	rugby	-	-
scanner	eskaner	escáner	escáner
sexy	sexi	sexy	sexy
slalom	eslalom	eslalon	eslalon
stress	estres	estrés	estrés
yuppie	yuppie	yuppie	yuppy

⁸ Ibidem, Leonardo Gómez.

Ikusten den bezala, nabari da anglizismoetan dagoen joera antzekotsua dela euskarazko eta gaztelaniazko kazetaritzan. Hala ere, euskara harantzago joan da forma grafikoen aldaketan: *derbi*, *sexi*, *trip*. Bestalde, Euskaldunon Egunkarian *ruby* sarrera ikustea sintomatikoa da; beste bi eskuliburuetan ez da ageri zeren hitzak erroak bota baititu jada espainieran; euskarari, aldiz, oraindik ikusten da berrikitan egin diren hiztegieta anglizismo honen grafiaren problematika, *errugbi* berba ere agertzen baita⁹. Euskarari mimetismoz jokatzeko dugu sarritan eta hori batzuetan ez da ona. *Derbi* eta *sexi* formak erabiltzeko gomendioa ematen bazaie kazetariari, ezer gutxi aurrera deza-kegu, bestalderetik, *rugby* idaztea hobesten bada. Ni y-dun formen aldekoa naiz erabat.

Ipar Euskal Herriko kazetagitza ere topatzen dira anglizismoak, nahiz eta maiztasun handiz ezin ikus ditzakegun. *Errugbilaria*, *bideoa*, *bideo-klipa*, *filma* eta horrelako hitz mailegatu zahar xamarak letra arruntez idazten dira, behin euskal ahoskerari segituz egindako egokitzapen grafikoak burututakoan; bestalde, alta, ingelesetik hartutako termino berriak ditugu, Ipar Euskal Herriko kazetariak aldaketa grafikorik egin gabe jasotzen dituztenak, argikiro agerian utziz erdarakadaren izaera (horretarako komatxoak erabiltzen ohi dituzte: «fair-play», kasu). Dena den, *Herria* euskal astekarian nabaria da aspaldidant harturiko bidea anglizismoak eta gainerako maileguak grafikoki aldatzeko euskal fonemei egokituz. Joera hori Hegoaldeko prentsan baino nabariagoa da; hala ingelesetik harturiko hitzetan (*errugbia*, *futbola*...), nola frantsetik jasotakoetan (*dozier*, *tronpatu*...) besterik ezin izan dute egin euskaraz alfabetaturiko jendearengana ahalik eta errazen heltzeko. Irakurleen nolakotasuna eta hizkuntz egoera garrantzizkoak dira anglizismoen grafiari buruzko joera bat hartzeko orduan.

Oraindik ere dago hedaturik, tamalez, anglizismoen adiera unibokoa, era arrotzak gorrotatzen dituztenek (hizkuntza na-

⁹ Ikus Elhuyarren Ikaslearen Hiztegi argitaratu berria.

zionalari kalte egiten diotela argudiatuz) behin eta berriz aldarrikatua. Horren adibide garbia, gaztelaniazko ikusentzunezko hedabide publiko baten esku-liburuan topa dezakegu, zeinetan anglizismoaz honakoa dioskun:

"ingelesezko hitzak beharrik gabe erabiltzeko bizioari esaten zaio, edo gizartean onetsia dagoelako elkarrizketa arruntean honelako anglizismoak erabiltzea: *meeting, coctail, crack, express, footing, picnic, week-end, interview, parking*... Hala eta guztiz ere, horrelakoak darabiltzatenek ahortzi egiten dute, beren hizkuntz trebezia erakutsi ordez, bi hizkuntzatan daukaten ezjakintasuna zinez argikiro agertzen dutela"¹⁰.

Anglizismoenganako gutxiespena baino ez agertzea ez da ongarria, askotan hartzen diren era arrotzek nabardurak dituztelako, bestela esanez gero —era "jator" eta propioaz—, apika gal daitezkeenak. Telemadrid-en eskuliburuan agertzen diren formen artean, esaterako, *cocktail* zein *cóctel* esanda, formak ez dio inoiz muzin egingo ingelesetiko mailegua izateari; *picnic* anglizismora pasatuz, beti geratuko zaigu zalanza *comida de campo* perifrasiak eta *picnic* hitz mailegatuak baliokidetz osoa ote duten.

Kontua ez da anglizismoen alde negatiboa baino ez ikustea, zeren kontzeptu berriak, nabardurak eta kontzeptu propioen ikuskera desberdinak adieraz baititzaizkete.

Ez deritzot egokia denik kazetariak hitz arrotz mailegatuen era grafikoak aldatzeari edota beste bide baten bidez subjektu-hizkuntzaren baliabideak erabiliz "hizperriak" (*neologismo* hitzaren erabat baliokidea ote?) asmatzeari. Nahiz eta batzuetan azken bide hori egokia izan daitekeen (gutxitan gertatzen da hori), orokorki, joera Europako herrietako gainontzeko kazetariak harturikoa izan behar da, hau da, era grafikoak mantentzearena. Kazetari britainiarrak ere estuki atxiki ohi zaizkio

¹⁰ Telemadrid telebistaren eskuliburua, Madril: Telemadrid, 1993, 288 or.

maileguzko hitzetan jatorrizko grafiak gordetzeari, tiletak eta guzti errespetatuz (frantsesetik harturikoetan esaterako ageri da hori: *pétanque, champagne, déjà vu, de luxe, portière, mayonnaise...*).

Ingelesezkotako sigla eta akronimoak eurrez

Hizkuntzaz arduratzen diren autore batzuek noizbait esan duten bezala, neologismoetan ugarienetarikoak laburkinak omen dira, hots, siglak eta akronimoak batez ere¹¹. Laburtzapenak, alta, bazter uzten dituzte zenbait autorek, neologiaren esparruan hizkuntza askok duten erreminta baliagarria den arren¹². Kontua, beharbada, laburtzapenei ematen zaien izaerara datza, zeren hiztegi askotan agertu ere ez baitira egiten—edo agertzekotan erabat lexikalizaturik daudenak soilik—. Nolanahi den ere, zer egokiagorik *bies* berba baino gaixotasun gaiztoa izendatzeko. Era berean, ez al da hamaika bider hobe BSE termino motza¹³ *behi zoroen gaixotasuna* edo *behien entzefalopatia espongiformea* enuntziatu luzeskak baino. Hortaz, aski ona izaten da terminologian termino zehatz eta laburrak erabiltzea, laburtzapenek (akronimoek, siglek, laburketek eta laburdurek) eskaintzen diguten parada. Ingelesdunak aspaldi konturatu ziren horretaz eta egun euskaldunok beraiengandik jaso ditugu kalkoak diren OHE (UFO), OPI (VIP), HIES (AIDS), GKE (NGO) modema, bitak (bit edo "binary digit")...

Bestalde, euskarak ere jaso ditu hedabideen bitartez, nagusiki euskal prentsa idatzari esker, hitz-laburtzapenez jantziriko

¹¹ Gaztelanian, esaterako, El País kazetako estilo ataleko arduraduna izandako Alex Grijelmok gaztelerak ingelesetik bereganatu behar izan dituen sigla asko aipatzen ditu "El neologismo necesario" izeneko liburuan, Madril: Fundación Efe, 1992, 94-95 orr.

¹² Peter Newmark-ek honakoa diosku laburdurei buruz: "Los abreviamentos han sido siempre un tipo común de pseudoneologismo, probablemente más común en francés y español que en inglés...". Aipua honako liburuan egiten du: "Manual de traducción", Madril: Cátedra, 1992, 199 orr.

¹³ Bovine Spongiform Encephalopathy, hau da, Behi Entzefalopatia Espongiformea (BEE).

anglizismo horiek¹⁴. Erabat lexikalizaturik dauden formez gain (laserra, radarra, moderna...) egun nazioarteko informazio jarioan etengabe aipatzen diren hainbat elkarte- edo korporazio-izen siglatu darabilte bertoko kazetariak (NATO, UNESCO, FIFA, FBI, FIBA...). Seguraski subjektu-hizkuntzan jatorrizko eran erroak botatzeko aukerarik gehien dituzten neologismoak lehen multzokoak dira, batez ere ahoskera bokalikoa dutenean, hots, silabaka, hitz arruntak baliran ebakitzen direnean (liborra, miborra, yuppia...); problematikoagoak dira *LP* edo *elepe* modukoak. Gaur egun, teknologiaren garapenaren eraginez, desagertzeaz dagoen anglizismo siglatu hori bi aldakitan agertu zaigu; ebakeratik sorturiko era grafikoa *elepe* bihurturik hobesten du El País-en estilo-liburuak (*elepé*); Euskaldunon Egunkarian, oster, *LP* era siglatua idazteko gomendioa ematen da, *elepe* moldearen kaltetan.

Bukatzeko iruzkin nahi nuke badirela sigla batzuk, sarritan erabiltzen diren anglizismoak izan arren inongo hiztegitan agertzen ez direnak; kasurik nabariena, beharbada K.O. (boxeoan erabilia eta *knock out* aditz lokuzioaren ordaina) laburkinnarena da, zeren harrigarria bada ere, gure bi hiztegi elebidun marduletan ez baita aurkitzen. Eskerrak horrelako kasuetan ere kazetarien estilo-liburuetan kontsulta daitekeen.

Laburbilduz: anglizismoei abegi ona

Hitz arrotzen presentzia egungo gizarteko komunikazioen iragazkortasun handiaren seinale baino ez da. Ingelesak asmatu egin du baliatzen bere ahalmen sozio-ekonomikoak eman dizkion posibilitateak eta, nagusiki hizkuntza klasikoen baliabideak eta laburtzapenak egiteko daukan abilezia aprobetxatuz, neologismoak barra-barra hedatu ditu munduko gainerako hizkuntzetara eramanez eta haietan txertatuz. Federico Krutwig

¹⁴ Ikus G. Jakobe Palazio: "Sigla eta akronimoen erabilera eta agertze-maiztasuna euskarazko prentsaren praxian" in "Nazioarteko Terminologia Biltzerra. Donostia 1997", Donostia: UZEI eta HAEE, 661-674 orr.

akademiko getxotarrak aipatu bezala¹⁵, ingelesa gertakariak eta egintzak interpretatzeko baliabide asko dituen hizkuntza da¹⁶, eta horren islada ari dira nabaritzen eta jasotzen (inola ere ez nozitzen) beste hizkuntzak.

Anglizismoen abegi ona erakustea izan da lerro hauen idazteko xedea, alde txarra baino ez baitigute erakutsi azken hamarkadetan gaztelaniaz hezi edo altxatu gaituztenoi. Aipatzeko ezin utz dezaket euskararen alorrean anglizismoek erakarri duten arreta urria (gaztelerakadek eta frantsesekadek ez bezala), gaiari eztabaidarako bidea zabalduz.

Erdarakada edo barbarismoak diglosikoak diren herrietako jende eskolagabe eta eskolatuen baitan azaltzen dira batez ere. Herri nagusietan, alta, problemarik ez da ikusten fenomeno horretan eta zentzu txarrik ez zaio ematen hitz berrien (beraz, —abardurak edo kontzeptu berriak) jasotzea izendatzeko berbari; ingelesdunek gure *erdarakada*-ren ordaina *loanword* edo *borrowing* hitzetan¹⁷ duten bezala, ona litzeteke apika hemendik goiti gero eta maizago erabiliko bagenu guk ere *mailegu* berba, ingelesetik ezezik, gainontzeko hizkuntza arrotzetatik jasotzen ditugun hitz eta esapideak izendatzeko, ateak zabalzabal utziz, baldin eta inolako beharrik gabe egiten bada edo nabardurak egiteko asmoz egiten dena testuinguru desberdinetan ohiko bihurtzeko arriskurik ez badago.

Finean bat etorri behar dugu Xabier Kintanak-eta euskara batuaren pizkundean horrenbeste garrantzi izan duen hiztegi elebiduncan aipatu zutenarekin hizkuntza modernoaren lexikogintzan anglizismoek eta bestelako maileguek duten garrantziaz jabeturik: "Nolabait hitz arrotzak onartzea garatuago dau den herriei ordaindu behar diegun royaltya da. Beraz, ez dago

¹⁵ Ikus Federico Krutwig: "En torno al decreto de Humanidades" in El Mundo del País Vasco egunkarian, 1997ko azaroaren 24an, *irritzi* sailean, 2. or.

¹⁶ Nahiz eta aurreraxeago ezagutu robotentzako hizkuntza baino ez dela, hizkuntza sinplea, grekoarekin ezin konbata daitekeena.

¹⁷ Nabardurak nabardura. Biak izan daitezke mailegutze prozesuaren mailakatze fasearen berba bereizgarriak.

arrazoirik, aberrikeria aitorgaitzagatik ez bada ere, produktu berriekin batera heltzen zaizkigun hitz arrotzak ez onesteko”¹⁸.

Afera honetan azken hitza kazetariak dukete, azkenaurrekoa Euskaltzaindiak. Hortaz, Jainkoak libratuko ahal gaitu kazetari narratsengandik.

Amaitu baino lehen zerbait garrantzitsua aipatu gura dut. Euskaran ere, auzoko hizkuntzetan egin duten bezala, bada garaia anglizismoak biltzeko. Agian oraindik goiz da euskara batuan hiztegi deskriptiboa (era fonologikoak ere ekar litzake-ena) burutzeko. Hala ere, hemendik lasterrera egin behar luke gure lexiko-biltzaleek lan handia arlo honetan, gaztelaniaren esparruan Félix Rodríguez irakasleak (“Nuevo Diccionario de Anglicismos”, 1997, Gredos) egindako lanaren adinakoa. Erroak kazetagintzan dituen hiztegi hori adibide ezin hobea-gotzat har dezakegu noizbait euskal hizkuntzan anglizismoak hurbilago eduki ditzagun.

Gorka Jakobe Palazio

EHUko Kazetaritza Saileko irakaslea

Artikulu honek honako irakurle aditu hauek izan ditu argitaratua izan aurretik (guztiek eskerrik beroenak egindako iruzkin eta aportazioengatik): Koldo Biguri, Gotzon Lobera eta Xabier Kintana.

¹⁸ Aipaua 21 orrialdean dator. Euskara batu eta modernoaren hiztegi hark 30.000 hitz zituen eta nola edo hala belaunaldi askoren liburu ezinbesteko eta erreferentziala izan da.